



FUNTZIONAMENDU ARAUAK Ospitalizazioko Unitatea - PSIKIATRIA

Dei egiteko beharrea bazaude, ERABILI GELAKO TXIRRINA

HELBURUA



Unitate honen helburua da osasun mentaleko arazoak dituzten pazienteak bizkortzen laguntzea. Gidaliburu honek Psikiatria Unitatearen inguruko oinarriko informazioa eskaintzen du, eta langileen eta familiaren arteko komunikazio egokia ezartzea du helburu, beti ere pazientearen sendatze prozesuan laguntzeari begira.

UNITATEAREN EZAUGARRIAK

Zerbitzu hau ospitaleko beste unitate bat besterik ez da, baina ezaugarri desberdinak ditu, eta ezagutu behar dira:

- Unitateak **erregimen irekia** du; beraz, badago pazienteak, ustekabeen, unitatea uzteko arriskua, kontrol-neurriak egon badaude ere. Hori gertatuko balitz, jakinaraziko genizueke.
- Pazientea **pijama eta mantala jantzita egongo da** (zerbitzukoak); bere arropa jaso eta arropategian gordeko dugu erizaintzako kontrolpean. Komeni da senideek dirua eta balioko gauzak jasotzea.
- **Pazientearen gauza guztiak** aztertuko dira, eta arriskutsuak izan daitezkeenak (labana, artaziak, sendagaiak...) kendu egingo dira, ospitaleratze egunean eta egunero.
- Pazienteek **debekatua dute** poltsikoko telefonoak, ipad, ordenagailua eta bestelako tresna-elektronikonak erabiltzea.
- Bisitariak ezin dute sartu ez janaririk, ez edaririk, ez tresnarik edo beste objekturik asistentzia-langileen baimenik gabe.
- Medikuen aginduz ateratzeko baimena izan dezakete. Kasu horretan ezinbestekoa da familiarrekoren bat berarekin egotea, eta ateratzen den lehenengo egunean familiarreko horrek agiri bat sinatu behar du. Agiri horrek hurrengo irteerarako ere balio du. 19:30ean unitatera itzuli eta taldeari jakinarazi behar diozu
- Medikuek bisitak, telefonoko deiak eta ateratzeko baimenak atzera bota ditzakete.
- Unitatean egunero izaten dira egunkariak.
- **ALTA hartzen duzun egunean, alta txostena jasotzen duzun bezain laster, gela utzi beharko duzu eguerdiko ordu biak baino lehen.**



BISITAK ETA DEIAK



- Pazientearen onuraz lantalde terapeutikoak aldatu ezean, bisita ordutegia astelehenetik igandera izango da 16:00etatik 20:00etara, eta larunbata, igande eta jaiegunetan, 11:00etatik 13.00etara. Ez da komeni bisita batean bi pertsona baino gehiago egotea batera.
- Familiarekin hitz egiteko, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 21:00etara deitu ahal izango dute Unitatera 945 00 77 97 telefonoan. Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako 15/1999 Lege Organikoari jarraituz, ez da emango ospitaleratutako pazienteari buruzko informaziorik.
- Zuen familiarreko tratatzen duen psikiatrarekin hitz egin nahi baduzue, hitzordua eskatu behar duzue astelehenetik ostiralera, 11:00etatik 13:00etara, 945 00 77 64 edo 945 00 77 69 telefonoan.



BESTE DATU INTERESGARRI BATZUK



- Ospitaleratzen denean, komeni da erizaintzako pertsonalari harremanetarako telefono bat uztea.
- Enpresara, familia-medikuari, ... eramateko ziurtagiria Harrerako Unitatean jasotzen da, behe-solairuko sarreran.
- Unitateko sarreran badira komunak bisitariarentzat (6ªB).



Kerik gabeko erakunde batean zaude. Hemen ezin da tabakorik erre edota zigarro elektronikorik erabili (baita aparkaleku, lorategi eta kaleetan ere).



KAFETEGIA Ordutegia: 8:00etatik 22:00etara.

Ate nagusiaren aurrean dago.

Itxarongeletan kafeak eta freskagarriak ematen dituen makina batzuk daude.

ERLIJIO-ZERBITZUA



- Beheko solairuan -B Pabiloian KAPERA bat dago
- Mezen ordutegia: Igande eta jai egunetan: 11:30ean; lan egunetan: 20:00etan.
- Apaiza eguneko 24 orduetan.
- Beste erlijio batzuetako pazienteek eta senideek laguntza eskatu diezaiokete euren arimako maisuari.

PAZIENTEAK ETA ERABILTZAILEAK ATENDITZEKO ZERBITZUA (PEAZ) beheko solairuan dago.

Ordutegia: 9:00etatik 14:00 etara astelehenetik ostegunera.